

16/03 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Xabier Aizpurua
Begoña Garamendi
Juan Carlos Jauregui
Isabel Kapanaga
Mari Tere Ojanguren
Antxon Rodríguez
Raimundo Rubio
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko maiatzaren 10eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **lanbide espezializazioko zazpi programa eta horiek baimentzeko eta irakasteko baldintza orokorrak ezartzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko ekainaren 19ko 5/2002 Lege Organikoak helburutzat du lanbide-heziketaren, kualifikazioen eta egiaztapenen sistema integrala ordenatzea, hala, eraginkortasunez eta gardentasunez erantzun ahal izateko gizarte- eta ekonomia-eskariei, hainbat hezkuntza modalitatearen bitartez. Orobat ezartzen du funts publikoekin sostengatutako prestakuntza-eskaintzak bizitza osorako prestakuntza ahalbidetu behar duela, eta igurikimen eta egoera pertsonal eta profesional desberdinei egokitu behar zaiela.

Lan esparruan, Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua dioen bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak dauka Estatuko legeria betearazteko eskumena, batez ere langileen kualifikazioa eta prestakuntza integrala sustatuz.

Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretuak -Lanbide Heziketako Hezkuntza Sistemaren antolamendu orokorra ezartzen duena eta otsailaren 2ko 14/2016 Dekretu bidez aldatu zena- Euskadiko lanbide espezializazioko programak ezartzen ditu Lanbide Heziketaren esparruan eta beren balioa aitortzen eta akreditatzen du indarrean dagoen araudi markoaren barruan.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek hamar artikulua dauzka, hiru xedapen gehigarri eta azken xedapen bat. Era berean, eranskinetan jasota daude lanbide espezializazioko zazpi programen egiturak.

1. artikulua dio arauaren xedea programak erregulatzea dela, eta horietako zazpiren irakaskuntzarako egiturak eta baldintzak definitzen ditu.

2. artikulua lanbide espezializazioko programen xedea azaltzen du.
3. artikulua programa horien garapena ezartzen du, jarduera txandakaturik lanbide heziketako zentroyen eta enpresen artean.
4. artikulua eskaintzaren baldintzak eta baimenak zehazten ditu.
5. artikulua arautzen da heziketa-zentroyen eta enpresen arteko akordioak formalizatzeko prozedura.
6. artikulua zehazten dira enpresa parte-hartzaileek bete beharreko baldintzak eta betebeharrak.
7. eta 8. artikuluetan programen finantzaketa eta aseguruak aztertzen dira, hurrenez hurren.
9. artikulua zentro baimenduek garatu beharreko programazioak arautzen dira, eta 10. artikulua ebaluazio eta akreditazio prozesua arautzen du.

Lehen xedapen gehigarriak irakasleek bete behar dituzten baldintzak zerrendatzen ditu. Bigarrena irakaskuntza-hizkuntzei buruzkoa da, eta hirugarrenak kontuan hartzen du espezializazio programa berriak egiteko eta onartzeko aukera.

III. ANALISIA ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak ezagutzen ditu programa horiek, lehenago ere irizpenak eman baititu halakoak barne hartzen dituzten beste hiru arauri buruz: lehenik, ekainaren 2ko 83/2015 Dekretua, Lanbide Heziketa Duala erregulatzen duena; bigarren, otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua aldatzen duen 14/2016 Dekretua, Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena; eta hirugarren, Lanbide Heziketako lege aurre-proiektua, oraindik argitaratu ez dena.

Hala, Lanbide Heziketaren lege-aurreproiektuari buruzko 15/15 Irizpenean, hauxe adierazi zuen kontseiluak hizpide ditugun programei buruz:

18.2 artikuluan planteatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Espezializazioko Programei buruzko prestakuntzak "Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan izango duela balioa, betiere zehazten diren ondorioetarako eta indarrean den araudiarekin bat etorrira".

Tituluen alorreko eskuduntza Estatuak baizik ez du (Konstituzioaren 148. art.), eta hain zuzen ere titulu horiei dagokie baliozkotasun ofizial bakarra (akademikoa eta profesionala).

Araudi marko honetan, Kontseiluak nahiago du Euskadiko Lanbide Espezializazioko Programa espezifikoek baliotasun praktikoa izatea, diseinatu diren eran gauza daitezten, eta lan munduaren errekonozimendua lor dezaten”.

14/2016 Dekretuaren behin betiko bertsioak, bere 12ter. artikuluko 7. atalean, hauxe dio: “(...) Euskadiko Lanbide Espezializazioko Programen inguruko prestakuntzak ez du titulu edo ziurtagiri akademikorik, ziurtagiri profesionalik edo ziurtagiri partzial metagarririk emango, eskumen horiek Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalean sartzen ez diren bitartean.”

Idazkera hori horrelaxe dago jasota, hitzez hitz, Dekretu proiektu honen zioen adierazpenean, baina ez ziurtagiriei buruzko 10.6 artikuluan.

Horregatik, argitasunaren mesedetan, Kontseiluak proposatzen du aipatu paragrafoa txertatu dadila artikulua horretan, dekretuaren behin betiko bertsioa idazten denean.

Azkenik, Kontseiluak balorazio positiboa egin du programa hauei buruz, berriro adierazi du erabilgarritasun praktikoa izan behar dutela, eta, eskatu du, programa berritzaileak direnez, emaitzen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2016ko maiatzaren 11an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA